

"Francisco Casanova" Musika Eskola- BERRIOZARko

kontaktu:

-

E-Posta: musica@berriozar.es

-

Telefonoa: 948 30 04 30 / 948 30 18 00

-

Helbidea: Oianondoa kalea 1, behe p.k.31013 Berriozar (NAFARROA)

Versión en castellano

Gaur egun 300 bat ikasle ikasten ari dira Berriozarko "Francisco Casanova" Musika Eskolan. Udalaren zerbitzu hau kokatuta dago herriko alde berrienean. Bertan, 18 instrumentu jotzen ikas daiteke, baita beste hainbat musika ikasgai ere: Musika Lantegia, Musika Hizkuntza eta Abesbatza. Bestalde, ikasleek estilo askotako musika taldeetan jo dezakete.

Eskolak musika ikasteko aukera ematen die 4 urtetik gorako haurrei zein helduei (metodologia bereziko taldeak daude 16 urtetik gorakoentzat). Izan ere, Eskolaren nahia da arte-jakintzagai hau pertsona guztiei eskaintzea, norberaren helburua aisia edo lan-ibilbidea izan.

Langile ez-irakasleez gain, hamabi irakaslek lan egiten dute XXI. mendeko beharren arabera diseinatutako eraikin zabal eta modernoan, irakaskuntza mota honek dauzkan eskakizunak betetzen dituen: hogei gela hotsgabetu baino gehiago (bertan eskola indibidualak eta taldekakoak ematen dira), ekitaldi-aretoa, saioak egiteko aretoak, liburutegia eta bideoteka, bulegoak eta bestelako zerbitzuen guneak.

Musika Eskolaren ibilbidea duela bi hamarkada hasi zen. Urte hauetan Musika Eskolak aurretik ez zegoen ondare musikala eman dio Berriozarri ea ezaugarri ezberdinetako pertsonak bildu ditu musikaren aterpean.

IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKETA

- Ikasgaiak (Tamaina 63kb)
- Pedagogi Plana (Tamaina 75kb)

ORGANIGRAMA

- Zuzendaritza-organoak:

Eskola-Kontseilua.

Zuzendaritza-talde: Zuzendaria (Fermín Goñi) eta Ikasketaburua (Stella Berzal).

Irakasleen Klaustroa.

- Irakasleak.
- Langile ez irakasleak.

INFORMAZIO ERABILGARRIA

- Egutegia (Tamaina 63kb)
- Matrikula eta tasak. 2008-09 ikasturtea (Tamaina 82kb)

INSTALAZIOAK

- Kokapena (Tamaina 76kb)

- Eraikina barnetik.

AZKEN BERRIAK

- Kontzertuen agenda

- Harremanetarako: musica@berriozar.es

- Estekak: Berriozarko Musika Banda

Helbidea: Oianondoa kalea 1, behea p.k.31013 Berriozar (NAFARROA)

Telefonoa: 948 30 04 30 / 948 30 18 00

E-Posta: musica@berriozar.es